



Udala eta Onddo Gazte Asanblada, Gaztetxeaz mintzo

VILLABONA ▶ Desadostasunak agerian,
Udalak plazaratu berri duen bandoari kontrabando
batekin erantzun egin dio gazte asanbladak ▶ 7



Urdapilleta etxea, Villabonako Gaztetxea. HITZA



Laskorain Ikastolaren Merkatu Txikia, arrakastatsu aurten ere

TOLOSA ▶ Hamargarren urtez antolatu du Laskorain Ikastolak
Merkatu Txikia eta, urtero legez, lehen egunetik makina bat jende
erakarri du Kultur Etxera. *Hemen euro bat, han milioi bat* lelope-
an, Saharari eta Amazonia Bolibiarreko Moxos lurrealdeari lagun-
tzeko bideratuko dute aurten jasotako dirua. I. ETXEBESTE ▶ 2

VILLABONA-AIZTONDO ▶

Manifestaziora deitu dute bost udalek, dispertsioaren aurka

Zizurkil eta Villabona artean egingo
dute manifestazio ixila, iluntzean ▶ 6

BIHAR ETA ETZI HITZARIK EZ

Bihar, Urte Berri egunez,
ez da Hitzarik argitaratu-
ko, prentsan ohi den mo-
duan gaur jai hartuko
dutelako langileek. Eta
bihar igandea denez, as-
teartean izango da HITZA
berriro zuen artean. Urte
berri on opa dizuegu
guztioi.

IBARRA ▶

Lehen itzulia amaitzeaz, bigarren da Ibarra

Taldea «konfiantza
handiarekin» ari da ▶ 5

Bridge
Language School

BRIDGE 2005, S.L
INGELES

- Haur, gazte, helduentzat.
- Taldeetan edo bakarka.
- Azterketa prestaketa; Cambridge University, H.E.O....
- Interprete eta itzulpen zerbitzuak

943 652 373 - 680 222 526
bridgetolosa@yahoo.es

Pablo Gorosabel, 2-1A • 20400 Tolosa - Gipuzkoa

Urte berri on!

MUGAR
Barruko Arropa

Nafarroa etorb., 16
TOLOSA
943 65 56 85

Calvin Klein

MERKATU TXIKIA ▶

Hau eta beste, elkartasunari esku emateko

Hamargarrenez antolatu du Laskorain ikastolak Merkatu Txikia Kultur Etxean

IRATXE ETXEBESTE

Laskorain ikastolak urtero Gabonetan antolatzen duen Merkatu Txikia hamargarren ediziora heldu da aurtengoan. Azken urteetan indar hartu du; honezkerok hainbat eta hainbat dira ekimenari esker lortutako diruarekin abian jarri ahal izan diren proiektuak. Batean eta bestean. Eguberrietako opo-

rraldiaren ostean egingo dute antolatzaileek zenbaketa, eta lortutako dirua Saharako eskolak birgaitzen jarraitzeko izango da urteroko moduan, baina baita Ameriketara bidaltzeko ere. Antolatzaileek diote Amazonia Bolibiarreko Moxos lurraldean Batxiler barnetegia irekitzeko eta hango musikari bultzada emateko helburuarekin ere ari direla lanean oraingoan. Abesbatza eta orkestra hori Europara etortzekoa da 2006ko urtarrila eta martxoa bitartean, eta Laskorain ikastolako abesbatzarekin batera, herrian kontzertu bat eskaintzea ari dira aztertzen.

Laskorain ikastolak elkarten laguntza izan du, beste behin, Kultur Etxean *Hemen euro bat, han milioi bat* leloa duen Merkatu Txikia atontzeko: Tolosako Udaleko Gizarte Zerbitzua, Irungo Taupada eta Emaus fundazioena eta Tolosaldea Sahararekin Gobernu Kanpoko Erakundearena. Iazko edizioetan bezala, honakoan ere tolosarren «borondate ona» espero dutela azaldu dute ikastolakoek.

Merkatu Txikian salgai jarri dituzten produktuak erosiz bakarrik ez, beste modu batzuetara ere eman daiteke laguntza proiektu horietarako: esate baterako, antolatzaileek zabaldu duten kontu korrontean dirua sartuz. Betiko moduan, elikagai bilketa ere ari dira egiten Kultur Etxean Saharara bidaltzeko: batez ere hegaluzea, konpresak eta azukrea eskatzen dituzte; pasta, arroza, olioa eta lekaleak ere bai.



Askotarikoak. Hainbat eta hainbat produktu daude salgai Kultur Etxeko Merkatu Txikian. I. ETXEBESTE



Opariak. Gabonetarako, aproposak. I. ETXEBESTE



Adi. Bat edo beste aukeratzera. I. ETXEBESTE



Jendetza. Lehendabiziko egunetik, makina bat jende izan da Kultur Etxeko Merkatu Txikian. I. ETXEBESTE

XEHEITASUNAK ▶

Merkatu Txikiaren inguruan jakin beharrekoak dira hauek:

PRODUKTUAK

Salgai. Jostailuak, jantzi erabilgarriak, liburuak, altzariak, koadroak, etxe eta brikolaje tresnak... askotariko produktuak daude salgai.

Bilketa. Kultur Etxera eraman daitezke saltzeko moduan dauden produktuak, Merkatu Txikia zabalik dagoen egun eta orduetan.

ORDUTEGIA

Kultur Etxean. 2006ko urtarrilaren 7ra bitarte izango da zabalik, 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

LAGUNTZA

Bi bide. Bi bide daude laguntza emateko: batetik, Merkatu Txikian salgai dauden produktuak erosiz; eta, bestetik, diru laguntza emanez. Kutxako kontu zenbaki honetara sar daiteke: 21010081190004212098.

hilberriak eta urteurrenak ▶



Izaskun Mendizabala Alkain
(Jexux alkate ohiaren bikotea)

Adiorik ez

Belauntzako Sustraiak

BELAUNTZA, 2005eko abenduaren 31

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldekohitza.nfo

GIZARTEA ▶



2.500 euro bideratuko dituzte Sahararentzat

N. Lataburu ▶ Pasa den asteko asteazkenean Usabalek saskibaloi partida berezia hartu zuen, gipuzkoar jokalarien artean osatutako talde baten eta Real Madrileko jokalaria beteranoen artekoa, hain

zuzen. Bertan bildutako dirua, 2.500 euro, Tolosaldea Sahararekin elkartearantz bideratu du Gipuzkoa Basketek, Udalaren babesarekin. Atzo egin zuten txekearen ematea udaletxean. NOELIA LATABURU

MUSIKA ▶

Santa Maria kaperaren kontzertua bihar

N. LATABURU

2006ko urte berriari ongi-etorria emateko, eta Eguberrietako oporren emanaldiak jarraituz, Tolosako Santa Maria kaperak kontzertua eskainiko du bihar Santa Maria elizan, 11:00etatik aurrera.

Bertan hiru pieza ezberdin abestuko dituzte emanaldiak irauten duen artean: lehenik eta behin, Meza pastoralak, ondoren *Cantante domino* eta, azkenik, Eguberrietako zortzikoa eskainiko du kaperak.

GIZARTEA ▶

NOELIA LATABURU

Bugee run, zezen mekanikoa, puzgarriak, Santa Fe tren, ludoetarak, balearen puzgarriak, bideo jolasak, ohe elastikoak, puzgarri handiak, jumpingak, spider zone, ateak, tailerrak... Hauekin guztiekin gozatzeko aukera izan dute aste honetan Ferialekura joan diren umetxoek, euren Gabonetako oporrak aprobetxatuz. Tolosako Gazteria sailak antolatutako Gabonetako Haur Parkea bere azken egunera helduko da gaurkoan, honenbestez.

Aurreko urteetan baino egun gutxiago iraun ditu aurtengoak, baina antolatzaileak «gustura» daude partaidetzarekin. Izan ere, gaur artean ehunka eta ehunka haur aritu dira jolasen Haur Parkeko gune ezberdinetan. «Asteaz zehar ume gehiago biltzen ziren arratsalde eta orokorrean jolasgune guztietan aritzen dira». Beraiekin izaten dira, halaber, gurasoak. «Umeak hona etortzea gustatzen zaigu, beste umeekin jolasean aritzeko eta egun alaia igarotzeko», esan zuen atzo aita batek. Gaur, 2005. urteko azken eguna den honetan, izango dute azken aukera etxeko txikitxoek, 3 euroren truke, Gabonetako Haur Parkea bisitatu eta jolas guztiak probatzeko, 10:30etik 13:30era eta 15:30etik 19:30era. Jendetza gehiena gaur espero dute, azken eguna izanik, eta larunbata gainera, «guraso asko eta asko animatuko baita bere haurtxoak bertara eramatera».

Gaur itxiko ditu ateak Gabonetako Haur Parkeak

Astebetez ehunka umetxo joan dira Udalak Ferialekuan atondu duen parkera; antolatzaileak «gustura» daude lortutako bisitari kopuruarekin



Ederki igaro zuten haurrek tren txikian bueltak. NOELIA LATABURU



Puzgarriak ere ez ziren falta, gazteboen gozamenerako. N. LATABURU

iragarki laburrak ▶

Garbitzaileak. Lan finkoa: eraikin publikoak, ikastetxeak, ospitaleak. Astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara. Informa zaitetz. 943 31 37 82.
Gidariak. Aldundian behar dira. Behin betiko kontratua. Informa

zaitetz: 943 31 37 82.
Urgentea. Haur zaintzaileak behar dira, Haur Eskoletako hezitzaileak. 943 31 37 82.
Ohar garrantzitsua. Ezintasun fisikoren bat badaukazu, lor ezazu postu finkoa. %5 erreserbatua. Doako

informazioa ondoko telefono zenbakian: 943 31 37 82.
Suhiltzaileak, udaltzaingoa. Udaletarako lanpostuak. Informazioa doan. 943 31 37 82.
Administrari laguntzaileak. Lanpostuak udaletarako. 1.200 euro.

Lanaldia: astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara. Informazioa doan. 943 31 37 82.
Laborategia. Lanpostuak: teknikoak, ikertegiko laguntzaileak, Eusko Jaurlaritzak. Informazioa doan. 943 31 37 82.

I. MARRAZKI LEHIAKETA ▶

Batetik zein bestetik

Arrakasta handia izaten ari da HITZak hurrei egindako deialdia; Iñigok, Iarok, Josebak, Uxuek, Ikerrek, Rosak, Iñigok, Alaitzek eta Izarok ere kontatu nahi izan digute nolakoa den beren herria



Iñigo Matxain Intxausti (10 urte, Villabona). «Argazkian azaltzen dena Villabonako udaletxea da. Frontoia, futbol zelaia, liburutegia eta dendak dauzka herriak».



Iara Duran (10 urte, Zizurkil Behea). «Nik gustuko dut nire herriko plaza, jolasteko leku aproposa delako».



Joseba Iraola Ulacia (8 urte, Tolosa). «Marrazki hau egin dut, nire herriko toki hau asko gustatzen zaidalako», dio gure lagunak bere iruditxoaren atzealdean.



Uxue Puerta Uranga (6 urte, Tolosa). «Tolosan Eguberriak onak izatea nahi dut», esan digu Uxuek bere marrazkiarekin.



Iker Olaizola Caballero (9 urte, Tolosa). «Olentzero gehiago gustatzen zait Erregeak baino», dio Ikerrek.




Rosa Milagros Hijona (10 urte, Altzo). Bere herriko udaletxea marraztu du gure lagunak: «Nire udaletxea aukeratu dut ondo margotuta dagoelako eta ondo kokatuta dagoelako».



Iñigo Balerdi Telleria (10 urte, Albiztur). «Zergatik marraztu dudan hau? Ur fresko-freskoa etortzelako iturri horretatik, eta jendea poztuta eta gustura geratzen delako Albizturko iturri honekin», azaldu digu Iñigok.



Alaitz Garcia Agirre (7 urte, Tolosa). «Gustatzen zait Tolosa lorekin egotea», dio Alaitzek bere marrazkian.



Izaro Etxaniz (8 urte, Tolosa). «Niri gustatzen zait Tolosara astoak etortzea», dio Izaro gure lagunak.

LEABURU ► EUSKARA

Euskal Herria euskalduntzeko hizkuntza politika berria abian jartzea derrigorrezkoa dela dio Udalak

Herritarrei zein gizarte eragileei eztabaida horretan partaide aktibo izateko eskaria luzatu die

IÑIGO TERRADILLOS

«Egun, euskarak Euskal Herrian egoera minorizatu» bizi duela eta «euskalduntzeko hizkuntza politika berria abian jartzea derrigorrezkoa» dela adierazten duen Kimu Berriak herri plataformaren mozioa onartu du Leaburuko Udalak.

Plataformaren ustez, euskararen gabezia eta ahulezia zapalkuntza historiko baten emaitza da, «Espainia eta Frantziako estatuek historian zehar Euskal Herriaren, euskal kulturaren eta euskararen aurka forma eta bitarteko ugari erabiliz bideratu duten errepresioaren ondorio; eta hori dela eta, euskaldunen hizkuntz eskubide individual eta kolektiboak egunero urratzen dira». Halaber, euskararen jendarte-ko erabilerak eta normalkuntzak «aurrera egiteko ezintasunean, gaur egun Euskal Herrian ezartzen ari diren

hizkuntza politikarako ereduak zerikusi handia» dutela dio Udalak onartutako mozioak. Batetik, galtzeko hizkuntza politikaren eredu dela dio, «euskara galtzera behartzen duen hizkuntza politika sunsitzalea, Euskal Herria bera desagerraraztea helburu duena», hain zuzen, bere ezaugarriak «Euskal Herriaren asimilazioa, hizkuntza kolonizazioa eta kultur ordezkapena» direlarik.

Eta, bestetik, menpeko hizkuntza politikaren eredu dela dio, «euskara erdaren menpean uzten duen hizkuntza politika menperatzailea», hain zuzen ere; horren ezaugarriak «euskararen menpekotasuna, bi estatuen hizkuntzen nagusitasuna eta euskararen ordezkapena bultzatzea» izango lirateke.

Hori kontuan hartuta, «Euskal Herrian indarrean dauden hizkuntza politikarako ereduak agortuta daude, eta ez

EUSKALDUNTZEKO OINARRIAK ►

«Inflexio puntu» honetatik abiatuz, Euskal Herria euskalduntzeko prozesuak zazpi oinarri hauetan eragin beharko duela aldarrikatzen du Leaburuko Udalak:

- Euskara Euskal Herri guztian hizkuntza ofiziala izatea.
- Belaunaldi berrien euskalduntasuna bermatzea, bizilagun euskaldunak bermatuz.
- Lan esparrua eta bereziki

enpresa pribatua euskalduntzeko baliabideak jartzea.

- Udalerrri euskaldunen garapen iraunkorra lantzea.
- Administrazio eta zerbitzu publiko guztien euskalduntzea.
- Hedabideak eta kultur produkzioak euskaraz lehenestea.
- Bide hau guztia egiteko beharrezkoak diren baliabideak (ekonomikoak zein azpiegitura mailakoak) bermatzea.

dute Euskal Herria euskalduntzeko balio», onartu zuen Udalak; beraz, eredu aldaketa ezinbestekoa denez, Euskal Herria euskalduntzeko hizkuntza politika berria abian jartzea derrigorrezkoa dela gehitzen du. Hala, hizkuntza politika berriak euskal hiltun komunitate

osoarentzat berdintasunezko estatusa eskatuko duena izan behar duela dio, «hau da, estatut politikoan, juridikoan eta soziolinguistikokoan gaztelaniak eta frantsesak euren lurraldeetan duten pareko egoera lortzeko eskubidea aldarrikatuko du». Eta Udalak onartu duena-

ren arabera, «euskararen normalkuntza osoaren gaiak eztabaida politikoaren erdi-erdian egon behar dute», horren aldeko konpromisoa hartzen duela rik.

Bestalde, «Euskal Herria euskalduntzeko prozesuaren inflexio puntuan» aurkitzen gara aldarrikatzen du, eta, era berean, euskal hiltun komunitatea berrosatzeko prozesuan urrats zehatz eta atzeraezinak ematea ezinbestekoa dela adierazten du Udalak. «Inflexio puntu» horretatik abiatuz, Euskal Herria euskalduntzeko prozesuak jarraitu beharreko zazpi oinarrietan eragin beharko duela aldarrikatzen du Udalak, Euskal Herri guztian ofizialtasuna, belaunaldi berrien euskalduntasuna bermatzea eta horiek egiteko baliabideak bermatzea, besteak beste.

Leaburuko Udalak eztabaida orokor hau emateko konpromisoaz gain, euskalduntze prozesua bultzatzeko konpromisoa hartu du horrela, eta «aurkitzen garen egoeraz baliatuz», bai eztabaidan, zein harturiko ebazpenen garapean, partaide aktibo izateko eskaria edo eskaintza egiten die bai herritarrei bai eta gizarte eragileei ere.

IBARRA ► ARETO FUTBOLA

ERREDAKZIOA

Nahiz eta denboraldi berria itxaropen gutxiarekin hasi —bi porrotekin ekin zioten— Ibarra areto futbol taldea pixkanaka-pixkanaka bere maila erakusten joan da. Hala, lehenengo buelta amaitzeko bi partida baino geratzen ez direnean, urtea bigarren postuan amaituko du Ibarako taldeak; izan ere, asteburu honetan atsedenaldia izango du. Lehen A mailako liderra Deportivo Alaves da 28 punturekin, Ibarra areto futbol taldea da bigarrenen, Gasteizko Atenea bezalako talde indartsuen aurretik; azken hau zazpigarren da ibartarrek baino 4 puntu gutxiagorekin.

Jose Manuel Tobias Ibarra-koen prentsa arduradunak azaldu bezala, partidaren bat kenduta «maila ona» erakutsi du aurten etxeko taldeak, eta goranzko bidean joan da denboraldia hasi zenetik. Ideia bat egiteko, pasa den urtean egun baino partida bat gehiago jokatuta Ibarrak 9 puntu baino ez zituen, eta aurten 25 batzen ditu eta bi partida baino galdu ez ditu.

Pasa den denboraldian behetako postuetan egotearen arrazoiak lesioei eta jokalar

Lehen buelta bukatzeaz dela, bigarren dira etxekoak

laz 9 puntu batu zituen aurten partida bat gutxiagorekin 25 dituenen; taldea «inoiz baino finkatuago eta konfiantza handiagorekin» aurkitzen da



2005-2006 denboraldiko Ibarra areto futbol taldeko jokalariek. i. t.

koren eskarmentu faltari egotzen zitzaion. Aurtengoan, ordea, jokalariek kategorian finkaturik daude, eta lesioak ere iaiz baino urriagoak direnez,

maila eta joko hobeak erakusten ari da taldea. «Konfiantza handiagorekin» jolasten dutela nabari zaie eta hori argi ikusten da bai egiten duten jo-

koan, bai eta emaitzetan ere. Halaber, finkaturik egoteak eta erakusten duten konfiantzak taldea «inoiz baino taldeago izatea» ekarri du berekin, jokalarien artean nola konpontzen diren kontuan hartuta. Bestal-

de, «gogotsuago» ekiten diete entrenamenduei hurrengo partida irabazteko grinarekin.

Aste honetan jokalariei atsedena eman diete, baina datorren astelehenean hasiko dira hurrengo partida prestatzen.



ASTEASU ▶

Poxpolo, Mokolo
eta konpainia,
kiroldegian

Eskolako Guraso Elkartek antolatuta, Poxpolo, Mokolo eta konpainia pailazoez ikuskizuna emango dute Asteasuko kiroldegian, urtarrilaren 7an, 17:30ean. Sarrerak salgai daude kiroldegian bertan eta Villabonako Iraola gestorian.

VILLABONA ▶

18/98 auziko
inputatuenganako
elkartasun festa

Aiztondoko gazteriak antolatuta 18/98 makrosumarioan eskualdeko auzipetuenganako elkartasun festa egingo da gaur gauean Gaztetxean. 01:30ean hasiko dira, topa eginez. Festa animazio, Nekin, DJ Zigor... iragarri dituzte antolatzaileek. Eta deialdi bat ere egiten diete festara joango direnei, hots, mozo-rrotuta joatearena.

ZIZURKIL ▶

Belvederek Marie
Brizard erosi du
306 milioigatik

Belvedere vodka ekoizleak Zizurkilen lantegi bat duen Marie Brizard Frantziako konpainia erosi du, 306 milioi euroren truke. Estatu Batuetako enpresak akzio bakoitzeko 141 euro ordainduko ditu. Hala hitzartu du Marie Brizarden akzioen %69 duen Duke Street Capitalekin, baina eskaintza bera egingo die ere beste akzio-dunei. Belvederek zehaztu du kapital handitze baten eta mailaguen bidez finantzatu-ko duela operazioa. Frantziako komunikabideen arabera, Marie Brizardeko langileen batzordeak begi onez hartu du operazioa.

ARAMBURU
Salgai (Tolosa). Pisua igogailuarekin
Larramendi kalean 112m2. Bista zoragarriak.
Salgai (Berrobi).
Pisua, barata eta babola. 168.000€
Salgai (Tolosa).
Pisua Laskorain kalean. Guztiz berritua.
Salgai (Tolosa). Lokai komertzialak Nagusia
kalean eta Belate ibilokian
Salgai (Tolosa). Garaje ibide Plaza zaharrean.
Alokatzeko (Arribas).
2 logelako pisua, Tolosatik 17km-tara.
Alokatzeko (Amezketza).
3 logelako pisua, altzairu eta garajearekin.
Alokatzeko (Amezketza).
3 logelako pisua, altzairuekin.
Alokatzeko (Tolosa). Pisua Rondilla kalean
943 65 17 13 / 677 46 09 16

PRESOAK ▶

Manifestaziora deitu
dute gaurko Aiztondo
bailarako bost udalek

Urtero legez, Urte Zaharreko egunean dispertsioaren aurkako aldarria egingo dute Zizurkil eta Villabona artean



lazko manifestazioa bukatuta, Zizurkilgo Joxe Arregi plazan egin zuten testuaren irakurketaren une bat. i.g.

ERREDAKZIOA

Urtero legez, Urte Zaharreko egunean Villabonako, Zizurkilgo, Adunako, Larraulgo eta Alkizako udalek deia luzatu diete Aiztondo bailarako herritarrei, gaur egingo den dispertsioaren aurkako manifestazio ixilean parte hartzeko. Giza eskubide guztien alde, euskal presoak Euskal Herrira lelopean egingo dute aldarrikapena, 19:00etan hasita. Zizurkilgo Joxe Arregi plazan elkartuta ibilbideari ekingo diote, eta Villabonako plazan amaituko dute.

Aiztondoko bost udalek onartutako idatzian azaltzen denez, «beste behin dispertsioaren eraginez euren etxetatik urrun dauden gizon eta emakumeak gogora ekarri nahi ditugu, are eta gogorago neurri politiko injustuen bidez urruntasun hori gero eta bortizagoa suertatzen baita».

Dispertsioaren aurka dau dela adierazi eta «euskal presoak Euskal Herrian egoteko duten eskubidea aldarrikatu nahi dugu beste behin».

IDATZIA ▶

Villabonako, Zizurkilgo, Adunako, Larraulgo eta Alkizako udalek izenpetu duten idatziaren zazpi puntuak:

1. Dispertsioa mantentzeak herri honen normalizazio eta baketze bideak oztopatu egiten ditu. Garai berriak, eskenatoki berriak entzuten ditugu hainbatetan ahotan eta bitartean dispertsioa bezalako neurri politikoak mantentzeak ez du laguntzen.
2. Ez dela giza legezkoa, espetxean egoteari, senide eta lagunei zigor erantsiak ezartzea, astebukaerako kilometro pila bat egin behar izatekoa 40 minutuko bisita bat egiteko. Dispertsioak eragiten dituen istripuak eta kalteak asko kezkatzen gaituzte.
3. Euskal presoak Euskal Herrian egoteak Herri honen baketze eta normalizazioan eragingo lukeen bezala, dispertsioaren aitzakipean ematen diren beste hainbat

- eskubide urraketa ez gertatzeko modua izango litzateke.
4. Isolamenduak neurri bezala kezkatzen gaitu. Presoari bere zigorra betetzeaz gain beste zigor erantsi batzuk gehitzen zaizkiolako, gauzak honela Curtisen Iñigo Guridi herrikidea 4 urte betetzera doa isolamendu ziega batean.
5. Euskal presoak Euskal Herrira ekartzeko idatzi hau izenpetzen dugun udalok gure ahaleginak egiteko konpromisoa berresten dugu.
6. Idatzi hau izenpetzen dugun udalok herritar guztiak aipatu manifestazioan parte hartzera deitzen ditugu. Honela, udal bakoitzak bando bidez idatzi honen jakinarazpena helaraziko die herritar guztiei.
7. Jakinarazpen hau bera jasoko dute baita komunikabide guztiek, Espainiako Barne Ministerioak eta Gasteizko Parlamentuko Giza eskubideen Batzordeak ere.

MUSIKA ▶

Loatzoko
abesbatzak
zilarrezkoa
Gipuzkoakoan

I. GARCIA

Irurako eta Anoetako 23 haurrez osatutako Loatzoko musika eskolako abesbatzak Gipuzkoako Gabonetako Abesbatza Lehiaketan zilarrezko domina eskuratu zuten, atzo goizean, Errenterian. Miren Mujikaren zuzendaritzapean aritu zen abesbatza, Iñaki Zalakainek eskusoinuarekin eta Mariaje Arratibelek zeharko flautarekin lagunduta.

Oso pozik zeuden bai abeslariak eta baita irakasleak ere. Izan ere, zazpigarren aldia da parte hartzen dutena Gabonetako lehiaketa honetan eta orain arteko emaitzarik onena lortu dute aurretik. Gainera, ez dute presatzeko denbora gehiegirik izan oraingoan. Gau erdian eta Akelarreko Gabonak izan dira lehiaketan abestu dituzten kantak.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))
Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
- ▶ Anoeta-Alkiza-Hernialde. Medikua: 65 23 39
- ▶ Asteasu. Medikua: 692423
- ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
- ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
- ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
- ▶ Ibarraldea. Osasun etxea: 672411
- ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
- ▶ Irura. Osasun zentroa: 690720
- ▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800
- ▶ Orendain. Medikua: 655595
- ▶ Oresa. Medikua: 682228
- ▶ Tolosa.
 - ▶ Anbulatorioa, larrialdi: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Germikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroizko dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
 - ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
 - ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930

Garraioak.

- ▶ Renfe: 902 24 02 02
- ▶ Donostiako autobusa: 361740
- ▶ Tolosaldea bus: 650621
- ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
- ▶ Taxia: 670420
- ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.

- ▶ Ertzaintza: 538820
- ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
- ▶ Tolargi: 650016
- ▶ Iurramendi egotiza: 670325
- ▶ Tolosa gasa: 675320

TOLOSALDEKO
HITZA.INFO

Eztabaida. Bihartik aurrera indarrean izango da erretzeari buruzko lege berria gure bi eskualdeetan. Zer iruditzen zaizue lege berria? Gogorregia da ala gogorregia beharko luke?

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Behorak. Monturako bi behor gazte salgai. Deitu 675 70 49 23 telefono zenbakira.

OHARRAK

Harremanak. Frantziska Garmendia Sarasolaren

sendiarekin harremanetan jarri nahi dugu. Deitu arren 943 62 48 60ra.

LANA

Sukaldaria. Emakume sukaldari profesionala behar da. Igandetan jai. 606 61 52 93.

VILLABONA ▶ GAZTETXEA

Gaztetxea eta haren egoera hizpide Udalak eta Onddok

Villabonako Udalak plazaratutako bandoari erantzun egin dio gazte asanbladak

ERREDAKZIOA

Villabonako Udalaren eta Gaztetxearen artean sortu diren «diskarrak» direla medio, hurrengo lerroetan Udalak etxez etxe banatu duen bandoa eta atzokoan etxez etxe banatutako Onddo Gazte Asanbladaren kontrabandoak jaso ditu HITZAK:

Udalaren bandoa. «Duela egun gutxi herrian egin diren Gaztetxe berria inauguratzeko ekintzen aurrean, Udal honek hasieratik izan duen jarrera azaldu nahi du: lehenik, gogoratu Udala eta gazteak eraikina Gaztetxe moduan erabiltzeari buruz hitz egiten eta aukera desberdinak aztertzen ari zirela. Bilera horietan dagoeneko aipatu zitzaizen Urdapilleta etxean haurtzaindegi berria jarriko zela.

30 etxebizitza berri eraikitze-ko Parkeko Fleming eskolara bota aurretik, Udalak lokal desberdinak eskaini zitzen Gaztetxea jartzeko. Erantzunaren zain geundela, gazteek Urdapilleta 'okupatu' zuten.

Berriz ere gogorarazi zitzaizen eraikin horretan haurtzaindegia zihoala, eta erantzuna bazekitela izan zen, eta ez zirela horren aurka joango; behar zenean Urdapilletatik aterako zirela.

Gogora ekarri behar da, egun, haurtzaindegiaren egoera ez dela batere egokia: instalazioak txikiak gelditu izanaren ondorioz, Larreako bi etxebetan ipini behar izan da egoitza.

Haurtzaindegiari kalitatezko eskaintza egin nahian, Hezkuntza sailari Urdapilleta etxean jartzea proposatu zitzaion, Eusko Jaurilaritzako Hezkuntza sailak oniritzia eman zionez.



Onddo Gazte Asanblada Urdapilleta etxea atzean duela. IMANOL GARCIA

Horregatik, dagokion proiektu teknikoa idazteko enkargua egin da, eta 2006. ekitaldirako aurrekontuan diru kopuru bat jaso dadila proposatu da.

Udal honen jarrera presio bideak saihesteara izan da. Horrela, gazteek Urdapilleta okupatu zutenean ez zen presioa neurririk hartu, ura eta argia mantendu egin ziren moztu beharrean... Behin eta berriz gogoratu zitzaizen etxe horren erabilera jadanik erabakita zegoela, gazteen beraien onarpenarekin.

Amaitzeko, esan behar da Udala ez dela inoiz Gaztetxearen aurka egon. Ulertzen dugu gazteek leku bat behar dutela,

baina leku egokia, eta berriz ere hizketan jarraitzeko prest gaude, guztion artean gaiari irtenbide egoki bat emateko».

Gaztetxearen Kontrabandoa. «Harriduraz jaso dugu herrian zabaldu berri den bandoa.

Alde batetik, bazen garaia Gaztetxearen egungo egoeraren aurrean udaletxeak balorazio bat egin zezan. Bestalde, egokiagoa litzateke, gezurretan oinarritutako idatzi bat zabaldu beharrean, gurekin harremanetan jarri izan balira, beti jakin izan baitute non gauden eta zein garen.

Adierazi nahi dugu, Udalak dioenaren aurka, okupazioa-

ren bidea aukeratzera behartu gintuztenetik ez dela inolako harremanik izan Gazte Asanbladaren eta Udalaren artean.

Beraz, ez dugu ulertzen inondik inora herriaren aurrean azaldu nahi izan duten irudi faltsua, beraien jarrera inmobilita hitz ederrez konpondu nahirik eta herriaren iritzia manipulatu.

Udalak dio 'ez gara inoiz Gaztetxearen aurka egon'; baina denbora honetan ez da Gaztetxearen aldeko pauso bat emateko gai izan, gure egoera ondo baino hobeto ezagutu arren. Ahoa betzen zaie 'gazteek leku bat behar dute baina egokia...' esaten dutenean, baina egokia al da zuek eskaintutako 30 m2-tara mugatzen den kale garbitzaileen gela bat? Hau al da guretzat duten irtenbide egokia? Ala eskuak garbitzeko erabiltzen duten irtenbidea da?

Ez da nahikoa Udalak herriko hainbat eragile eta taldeen alde egindako lana, hauen beharrak aintzat hartu eta asetzen saiatu beharrean beraiek jakingo dituzten arrazoiak tarte-ko lehentasuna eman die kanpoko taldeei herria hipotekatuz.

Non dira, ordea, *Aiurri*, haurtzaindegia edo herriko musika taldeak? Non da herriak hain beharrezko duen kulturaren aldeko apustua?

Jakin egoera honen erantzule bakarra Udala dela, ez delako aurreikusitako herri honen azpiegitura sozialaren beharra.

Amaitzeko, Onddo Gazte Asanbladako kideok adierazi nahi dugu ez gara herri honen duen arazo bat, beraiek ulertarazi nahi izan duten bezala; beraiek sortutako arazo baten ondorio baizik».

ALEGIA ▶

Presoen aldeko manifestazioa gaur iluntzean

Presoen aldeko urteko azken manifestazioa urteko azken egunean antolatu du Etxerak, hain zuzen ere, Alegian. Amnistiaren aldeko aldarrikapena 19:00etan izanen da gaur, eta herriko plazatik abiatuko da.

ALEGIA ▶

Gaztetxeo afari-merienda arrakastatsua



Gaztetxean jana dastatzen. N.U.

Ostegunean, Alegiako Gaztetxean antolatutako afari-merienda-lunch-ean gazte talde polita elkartu zen. Ondoren ikustekoak ziren antzerkiak jarraitzeko prest ere agertzen ziren. Olerki musikatuak izan ziren, baita malabareak ere; barre egiteko, baina aldi berean zorrotzak ziren egoerak ere antzeztu zituzten Iruñeko antzerki eskolako gonbidatuek, eta baita Oretako Mikelazulokoek ere. *Alegi la nuit* espreski egun horretarako prestatu zuten; eta zantalzarik gabe han egon zirenek, berogailuak emandako bero epela alboan, gau boro-bila igaro zuten. Hurrengo astean ere ekitaldi bereziak egingo dituzte Gaztetxeoek, 18. urtemugaren harira: haurren eguna, besteak beste.

hitza **txokoa** lagunena

Egin zaitez harpidedun!

▶ 45 €-ren TRUKE, HITZA egunero jasotzeaz gain, HAINBAT ABANTAILA izango dituzte harpidedunek. Harpidedunen txartela izango dute, besteak beste, eta HITZAK egiten dituen zozketetan parte hartzeko aukera.

▶ HITZAren harpidedun izan nahi baduzu, deitu **943 30 43 46** telefono zenbakira.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAren harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!